



LAIKOTASUNA HELBURU

Berdintasuna bermatu, askatasuna bermatu: laikotasuna

Jendarte demokratikoak herritarren eskubideak eta askatasunak berdintasunezko baldintzetan defendatzea du ezaugarri nagusia.

Estatua eta erlijioak bananduta egotea ezinbesteko baldintza da, legearen aurrean denon berdintasuna bermatzeko. Erakunde publiko guztien laikotasuna, batik bat, herritarren adostasunezko printzipioa da eta batzen gaituena du oinarri eta ez banantzen gaituena. Hitzarmen honek bi adierazpide ditu: bata, erakunde publikoak eta erlijio-instituzio ezberdinak banantzea bermatuko duen zuzenbide-esparru bat ezartzea eta, bestea, kontzientzia-aukera ezberdinekiko erakunde publikoen neutraltasuna. Laikotasuna, beraz, jendartearen osasun demokratikoa, mundua ulertzeko ikuspegi irekia eta giza eskubideak bermatzen dituen osagaia da, batik bat elizen esku-sartzeak bereziki urratu dituzten emakumeen eskubideak eta LGTI kolektiboaren eskubideak.

Laikotasuna elkarrekin bakean bizitzeko eta pertsona guztion kontzientzia-askatasuna eta jokabide-berdintasuna bermatzeko ezinbesteko baldintza da.

Mozioren puntuak:

1. Oiartzun udalerriko jabetza-erregistroei eskatzea Oiartzungo Udalera igorri ditzala erregistro horietan, Eliza Katolikoak, izen ezberdinekin (elizbarruti, gotzaindegi, parroki edo antzekoak), egindako inmatrikulazioak eta ohar simple guztiak. Lege hipotekarioaren 206.artikuluaren babespean egindako guztiena (1946tik 2015era).
2. Udal honetako udal-gobernuari eskatzea jabetza-erregistroek igorritako informazioaren berri eman diezaiela Udalbatzako udal-taldeei, eta, era berean, informazio hori herritarrei helaraz diezaiela, eskura dituen komunikabideen bidez.
3. Estatuko Gobernuari eskatzea proposamen hau onartu eta hiru hilabeteko epe luzaezinean agindu dezala hierarkia katolikoak Lege hipotekarioaren 206.artikuluaren bidez egindako idazpen guztiak baliogabetzea, konstituzio-kontrakotasun nabarmenagatik, eta, gainera, EGEAren (Europako Giza Eskubideen Auzitegia) doktrina eta ebazpen lotesleak betearazteko. Baliogabetze hauek indarrean dagoen araudiaren bide edo hala badagokio, behar den araudia sortuz egitea eskatzen da.
4. Eliza Katolikoak bere ondasunengatik duen zerga-salbuespena, OHZ ez ordaintzekoa deuseztatzeko behar diren izapideak egitea.
5. Izaera zibileko ongi etorria edota agurra adierazteko eremu egoki eta erosoak (beilatokia eta udaletxeko aretoa) erabilgarri daudela herritarrei zabaltzea eta sustatzea.
6. Udalak diruz laguntzen dituen jaien egitarauetan eta bestelako ekintzetan jarduera erlijiosoak ez laguntzea.
7. Hartu diren erabakien berri dagokionari ematea.

Jesus Gonzalez
664 887 046
jrobles@gmail.com
077969782